

1. ARTIKULUA

Zergatik partaidetzazko aurrekontu hori?

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluak bi lurraldeen artean loturak sortzen dituzten proiektuak garatzen lagundu eta animatu nahi dituzte bertako biztanleak.



2. ARTIKULUA

Nork aurkez dezake proiektu bat?

Gipuzkoan bizi bazara:

- 16 urtetik gorako edozein herritarrek, bakarka nahiz taldean.
- Irabazi asmorik gabeko herritarren erakundeak, edozein dela ere haien forma juridikoa eta izaera, baldin eta interes kolektiboak defendatzea badute helburu.

Pirinio Atlantikoetan bizi bazara:

- 11 urtetik gorako edozein herritar edo herritar talde (baldin eta erreferentetzat 16 urtetik gorako pertsona bat badute).
- Edozein pertsona fisiko edo juridiko.
- Pertsona fisikoak entitate juridiko bat (elkartea, fundazioa) sortu edo haren laguntza izan beharko du, bere proiektua bozkatua izan dadin eta, irabazle suertatzen bada, laguntzak jaso ditzan, baina hori ez da baldintza izango proiektua aurkezteko unean.
- Entitate juridikoa elkarte edo fundazio bat izan daiteke. Enpresak ez dira hautagarriak.

Eskatzaile bakoitzak gehienez proiektu bat aurkez dezake eta beste batetan laguntzaile izan daiteke. Aurreko edizioetan diruz laguntza jaso duten proiektuak ezin dira berriro aurkeztu. Proiektuak derrigorrez bi lurraldeetako eragile desberdinen arteko lankidetzan aurkeztuak izan behar dira.



3. ARTIKULUA

Zein proiektu dira hautagarriak?

Proiektu bat hautagarria izan dadin, baldintza hauek bete behar ditu:

- Aurkezten diren proiektuak bat etorri behar dira Pirineo-Atlantikoeko Departamendua eta Gipuzkoako Foru Aldundia garatzen ari diren politika publikoekin,
- Helburutzat izatea «Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako biztanleen artean loturak sortzea»,
- Horretarako prestatutako formularioan xehetasunez aurkeztea,
- Interes orokorrekoa izatea (ez komertziala).



4. ARTIKULUA

Nola aurkeztu proiektu bat?

Proiektuak www.gipuzkoa64.eu web orrian eskuragarri dagoen formularioaren bidez aurkeztu behar dira, zuk aukeratutako hizkuntzan: gaztelaniaz, frantsesez edo euskaraz. Aurkezteko epea: 2023ko ekainaren 9tik 2023ko uztailaren 9ra, biak barne.

Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako lankidetzako proiektu bat aurkeztuz gero, formulario bat baino ez da bete behar.



5. ARTIKULUA

Nork eta noiz egingo du proiektua?

Proiektua proiektuaren sustatzaileak egin behar du nahitaez, izan herritarra, herritar taldea edo elkarte.

Proiektuek 2024ko urriaren 31erako amaituta egon beharko lukete. Onuradunak diren elkarteek, bere proiektuaren zuriaketa kontuak 2024ko azaroaren 15arte entregatzeko aukera izango dute.

Pirinio Atlantikoetako proiektuetarako:

proiektuaren sustatzailea pertsona fisikoa bada, pertsona juridiko baten (elkartea edo fundazioa) laguntza izan beharko du proiektua egiteko (2. artikulua).

Gipuzkoako proiektuetarako:

Proiektuaren sustatzailea adingabea den kasuetan, proiektuaren buru izateko ardura hartuko duen adin nagusiko pertsona baten edo pertsona juridiko baten (elkartea, fundazioa) laguntza izan beharko du. Sustatzailea pertsona heldua bada, zuzenean hartuko du bere gain proiektua gidatzeko zeregina.



¹ proiektuaren jatorri geografikoa zehazteko «lurraldea» laukitxo erabiliko da, sustatzaileak proiektua aurkezteko formularioan markatu duena.



6. ARTIKULUA

Zeintzuk dira laguntza finantzarioak?

300.000 euroko aurrekontu orokorra gorde da proiektuak gauzatzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluak 150.000 euro jarriko ditu bakoitzak. Proiektua Gipuzkoan aurkeztu bada, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatuko du¹. Era berean, Pirinio Atlantikoetako Departamentuan aurkeztutako proiektuak Pirinio-Atlantikoetako Departamentu Kontseiluak finantzatuko ditu¹.

Nori ordaintzen zaio laguntza finantzarioa?

Laguntza finantzarioa proiektuaren sustatzaiteari ematen zaio. Gipuzkoako eta Pirinio Atlantikoetako erakundeek batera edo lankidetzan aurkeztutako proiektuen kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoa erakunde bakoitzak daukan arautegiaren arabera banatuko da.

Zein da laguntzaren zenbatekoa?

Mugaz gaindiko partaidetzazko aurrekontuak proiektuaren kostuaren % 100 finantzatu ahal izango du, gehienez ere 20.000 euro. Proiektuak kopuru hori gainditzen badu, sustatzaileak konpromisoa hartzen du gainerakoa bere funtsekin bakarrik finantzatzeko.



7. ARTIKULUA

Nola hautatzen dira proiektuak herritarrek bozkatzeko?

Bi erakundeetako aditu teknikoek osatutako ebaluazio batzorde batek bideragarritasun teknikoa puntuatuko du, irizpide hauen arabera:

Proiektuaren kalitatea: 70 puntu.

- Proiektuaren deskribapena, motibazioa: nor? norentzat? zer? zergatik? nola? noiz? eta non?
- Proiektuak gai hauek kontuan hartzeko duen gaitasuna:
 - Gazteen parte-hartzea. 25 urtetik beherako gazteek gidatutako proiektuak edo 25 urtetik beherako gazteei zuzendutako proiektuak.
 - Genero ikuspegia.
 - Eleaniztasuna.

Mugaz gaindiko izaera: 30 puntu.

- Proiektu bat mugaz gaindikotzat joko da, baldin eta:
- Bi lurraldeetako ordezkariak batera aurkeztzen badute,
 - Bi lurraldeentzat onuragarria bada edo bi lurraldeetan garatzen bada.

Aztertutako proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluko ordezkariak osatutako zuzendaritza batzordeari bidaliko zaizkio. Batzorde horrek aurkeztuko du herritarrek bozkatzeko dituzten proiektuen behin betiko zerrenda. Puntuazio tekniko nahikoa lortu duten proiektuak bakarrik bozkatuko dira.



8. ARTIKULUA

Nola funtzionatzen du herritarren botoak?

Bozkatu beharreko proiektuen zerrenda www.gipuzkoa64.eu webgunean kontsulta daiteke. Bozketa irekita egongo da 2023ko irailaren 1etik 24ra arte (biak barne).

Nork eman dezake botoa?

Gipuzkoan:

- Gipuzkoan bizi den 16 urtetik gorako pertsona orok.

Pirinio Atlantikoetan:

- Pirinio Atlantikoetan bizi den 11 urtetik gorako pertsona orok.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluak botoak sistematikoki egiaztatuko dituzte iruzurra saihesteko. Iruzurra gertatuz gero (posta elektronikoko okerrak erabiltzea, nortasuna ordeztzea, etab.) edo iruzur susmo handiak izanez gero, zehapen hauek aplikatu ahal izango dira:

- Proiektuaren liderrak iruzurra egiten badu, proiektua ezabatu egingo da bozkatzeko zerrendatik.
- Boto-emaile batek iruzurra egiten badu: haren botoa ez da kontuan hartuko.

Nola bozkatu?

Bozketa www.gipuzkoa64.eu webgunean egingo da. Herritar bakoitzak 3 proiektu bozkatu behar ditu nahitaez.



9. ARTIKULUA

Nola aukeratzen eta finantzatzen dira proiektu irabazleak?

Boto gehien lortzen dituzten proiektuak irabazle izendatzen dira, honela:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoan boto gehien jaso dituzten proiektuak finantzatzeko ditu, 150.000 euroko aurrekontua agortu arte.
- Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluak Frantzia boto gehien jaso dituzten proiektuak finantzatzeko ditu, 150.000 euroko aurrekontua agortu arte.

Berdinketa gertatuz gero, proiektuak finantzatu ahal izango dira aurrekontuko zuzkidurek horretarako aukera ematen badute. Bestela, puntuazio tekniko onena lortu duen proiektua izendatuko da irabazle. Aurrekontuak ez badu aukerarik ematen boto kopuruagatik hautatutako azken proiektua osorik finantzatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseiluak eskubidea izango dute proiektua finantzatzeko behar den zenbatekoa osatzeko.



Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro